



Asteasuko Amenabar baserriko bi bizilagunak onik atera dira, eta udalak eman die ostatu

Larunbat arratsaldean hartu zuen su Asteasu eta Andazarrate gainaren artean dagoen Amenabar baserriak; teilatua guztiz erreta geratu zen **7**

Jokin Altuna eta David Merinok txapelketan bizirik irauteko gairapena eskuratu dute

Bigarren puntua lortu du amezketarrak, eta Artola alegiarrak bost baditu; IV. Ogi Berri Migel Soroan, berriz, partida oso orekatuak jokatu zituzten igandean **6**



tolosaldeko ataria

4. urtea. 427. zenbakia. • www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm • **ASTEARTEA, 2016-01-19**



Tolosako Gazte Asanbladako kideek, atzo, agerraldia egin zuten larunbatean okupatu zuten eraikinaren aurrean. MIKEL IRAOLA

Ertzaintzaren jarrera «guztiz bidegabeta» izan dela salatu dute

Tolosako Udalak «okupazioaren bidea» ez duela babestuko eta gazteek «bide okerra» hartu dutela adierazi du; «helburuak lortzeko indarra baino egokiagoa da bide demokratikoaren lanketan indarrak jartzea» gaineratu dute **4-5**

Ibon Aburuza

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakaria

«Sagardoa %100 bertako sagarrarekin egitea da helburua»

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakari da urte hasieratik, eta ilusioz eta gogoz hartu du kargua **3**



Aburuza, Adunan duen sagardotegian. J. MIRANDA

Euskaltzaleen aktibazio eta hausnarketarako bide, Topaldia

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta XIII. Topaldia prest da; urteroko zita, erreferente bilakatu nahi dute **2**



Badatoz inauteriak!

#inauteriak16

Dagoeneko **jarraitu** ditzakezu Tolosako inauteriak **ataria**n!

www.ataria.info

Argazkiak, bideoak, informazio interesgarria...

Euskalgintzaren bidegurutzean beste geldialdi bat Topaldian

Euskaltzaleen Topaguneak bere barne hausnarketan sakondu nahi du

MAIER UGARTEMENDIA

Euskaltzaleen aktibazioa izango dute hizpide eta hausnarketa gai Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako XIII. Topaldian. Durangoko Landako Elkartegian izango da, urtarrilaren 21ean.

Mikel Ozaita ibartarra Euskaltzaleen Topaguneko kidea da eta Topaldia antolatzeko lanetan aritu da. Urteroko zita bilakatu da honakoa eta erreferente izatea espero dute: «Euskal elkarten mugimenduko ki-deentzat eta euskalgintzako jardun-bide guztientzako».

Horrez gain, barne hausnarketarako gune bezala baliatzen dute Topaldia. 96 euskara elkarteak eta 20.000 bazkide inguruk osatzen dute topagunea, tartean Galtzaundi euskara elkarteak. Horiekin eta gainerako norbanakoekin «beharrezkoak diren hausnarketak partekatzen» saiatzen dira Topaldian.

Euskalgintza bersortzen

Euskaltzaleen aktibazioan hutsunak nabari dituzte Euskaltzaleen Topagunean, eta kezka horretatik ezarri dute topaldi honetako hausnarketarako gaia Ozaitaren esanetan: «Duela 30-40 urte euskara elkarteak, ikastolak, helduen euskalduntze

eta alfabetatze mugimendua, Egun-karia edo 90. hamarkadan tokiko komunikabideak sortzen ikusi genituen, hamarkada batzuetan erakunde eta aktibaziorako gune ezberdinak, baina ikusi dugu XXI. mende hasieran ez ote gauden apalaldi batean».

Egoera horren aurrean euskalgintzak «bersortu» egin behar duela eta euskararen mugimenduan «jende gehiago eta generazio berriak» txertatzeko beharra ikusten dute. Izan ere, oraindik «gune asko euskalduntzeko» daudela ikusten dute euskaraz «normaltasun osoz» bizitzeko.

Hain zuzen ere, Euskaltzaleen Topagunea hainbat eragilarekin batera hausnarketa hori egiten ari da une honetan *Berrikusi/Berrikasi* txostenaren barruan eta bi aldarrikapen egiten dira: «Elkarte eta gizarte erakundeen autonomia eta euskalgintza eta euskara lehia politiko-tik kanpo utzi behar dugula». Hau da, euskara «arnasgune politikoa» izatea eta «oinarrizko akordio batera iristea» litzateke helburua.

Diskurtsoak ere egokitzen

Topaldiaren edukiak bost bloketan banatu dituzte. Lehenengoan Autoeraketa, autonomia eta mugimendua kontzeptuak landuko dituzte. Bigarrenean, hizkuntzaren gaineko diskurtsoak. Hirugarrenean, euskararen normalizazio prozesuan ahal-duntzea eta aktibismoa. Laugarrenean, ekintza performatiboak, eta azkenean, euskaltzaleen aktibazio



Mikel Ozaita ibartarra da XIII. Topaldiako antolatzaileetako bat. ATARIA

berri baterako zumitzak izango dituzte hizpide.

Gaiak euskalgintzan eta soziolinguistikaren arloan ezagunak diren hainbat adituk landuko dituzte. Tartean izango da Lorea Agirre alkizarra, Jakin aldizkariko zuzendaria, *EuskAHALduntzea, nondik jo?* hitzaldia eskaintzen eta baita aktibazioaren inguruan egingo den elkarriketan parte hartzen.

Eta eskualdeko beste ordezkaria Mikel Ozaita bera izango da, Ainara Azpiazurekin batera *Marichulo/kosmopaleto, puta/cashero. Kontrako diskurtsoei aurre egiteko hainbat zertzelada feminismoaren ikuspegi-tik* hitzaldia eskaintzen. Hain zuzen ere, diskurtsoaren inguruko hausnarketa bat eragin nahi dute: «Euskararen kontrako diskurtsoak era-

biltzen dira sarean eta guri iruditzen zaigu ez ote garen epel xamar gertatzen, iruditzen zaigu guk ere sinbolikoki bada ere ez ote dugun hasi behar kontraerasoan umorearekin bestelako bideen bitartez». Horretarako, XXI. mendera «egokitutako» diskurtso bat behar dela, eta neurri berean kontrako diskurtsoak planteatzen dituztenei «aurre egin behar harko geniekeela» uste dute, «modu umoretsu batean eta beraien argudio ezak agerian utziz».

Tolosaldean ere euskaltzaleen mugimendura «batzeko» deia egiten du Ozaitak, «premia» bai baitago. Hain zuzen ere, bide horretan «gazte talde bat» hausnarketa horretan dagoela dio Ozaitak, eta interesa duenak Galtzaundira jotzeko aukera badiela euskalduntze asmo horretan.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak eskualdean

Eskualdeko hainbat herrietako kanporaketak asteburu honetan jokatu dira

MAIER UGARTEMENDIA

Euskal Herriko Mus Federazioak urtero antolatzen duen Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak egiten ari dira astebururo, eta datorren asteburuan hainbat hitzordu izango dira eskualdean.

Herrietako kanporaketen ondoren, otsailaren 20an zazpi herrialde-tako kanporaketak jokatu dira eta martxoaren 5ean final nazionala Zuberoan, Urdiñarbe herrian.

Kanporaketak

URTARRILAK 22, OSTIRALA

Berastegi. 22:00etan. Urepele elkarteak.

Ikaztegieta. 22:30ean. Ostatuan.

Larraul. 22:00etan, Herriko Ostatuan.

URTARRILAK 23, LARUNBATA

Alegia. 15:30ean, Hilario Tabernan.

URTARRILAK 24, IGANDEA

Lizartza. 17:00etan, Joxe Mari Tabernan.



Iragarki laburrak

PISUKIDE BILA

Tolosan: Pisukide neska baten bila nabil. Etxea handia da, eta 3 logela, bi komun, sala ederra eta espazio handia duen sukaldea ditu. Gaine-

ra, herriaren erdigunean dago bizilekua. Gelaren prezioa 200 eurokoa da, eta bestelako gastuak –ura, elektrizitatea eta gasa bi hilean behin–kopuru horri gehitu beharko zaizkion. Kontaktua: 680 25 80 40.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Irudia Ibarra



Elkartasuna Ibarratik Vivonneraino

Maite Aranalde ibartarra Frantziako Vivonne espetxean dago, herritik 468 kilometrotara, eta larunbatean elkartasun martxa bat antolatu zuten bertara. 30 pertsona joan ziren autobusez. Senideek bisitak bu-

rutzen zituzten bitartean, bertaratutakoek espetxeari buelta eman zioten banderola eta pankartekin. Horrez gain txalaparta, suziriak eta aineratutako banderola ere ez ziren falta izan. ATARIA

Ibon Aburuza • Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakaria

«Aurtengo sagardoak garai batekoaren tankera gehiago du»

Urte hasieran hartu zuen sagardogile elkarteko lehendakari kargua adunarrek

JON MIRANDA ADUNA

Ibon Aburuzak (Aduna, 1975) aurretik sei urte eman ditu Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko zuzendaritza batzordean. Lehendakari kargua hartu zuen urtearen hasieran eta lau urtetan jardungo du eginkizun horretan.

Zein animorekin hartu duzu kargu berria Gipuzkoako Sagardogileen Elkartean?

Animoarekin, gogoarekin eta ilusioarekin hartu dut baina baita errespetuarekin. Nik sei urte daramatzat zuzendaritza batzordeko kide bezala. Orain arte lehendakariorde izan naiz eta orain lehendakari. Kargu handia da presidentea izatea, baina ahal dena egiten saiatuko gara.

Nola antolatzen zarete elkartean?

Gaurko egunean 42 sagardogile gaude eta sagardo munduan dagoen guztia mugitzen dugu: turismoa, diru laguntzak, ekoizpena... Enpresa txikiak gara normalean, familia artekoak gehienak, baina aldi berean mugimendu handia ibiltzen dugunak. Ikusi besterik ez dago txotx garaiak zenbat jende mugitzen duen. Potentzial handiko enpresak gara.

Zenbategi erabiltzen duzue sagardogileek bertako sagarra sagardoa egiteko?

Uztaren arabera izaten da hori, aurtengoa adibidez oso ona izan da. Gutxi gorabehera, %65-70 inguru bertako sagarrarekin egina dago. Gure nahia elkartetik %100 bertako sagarrarekin egitea da, eta pixkanaka lortzeko bidean goazela uste dut.

Ekoizpen prozesuan betebeharrak asko dituzue sagardogileek?

Gu geu gara geure buruarekin zorroztzenak. Osasun eta garbitasun arloan oso estu hartzen ditugu neurriak badakigulako jakin guretzako hobea dela. Lehengo era zaharrean egiten da sagardoa baina makinaria aldetik salto handia eman da. Garestia da, ordea, eta sagardoak duen prezioarekin, nahi adina inbertsio ezin izaten dugu egin. Elkartearen helburua ahalik eta baldintza egokienak bilatzea da hobekuntzan aurrerapausoak emateko.

Upel batetik bestera, etxe batetik bestera, urtetik urtera... ezberdina da sagardoa?

Bai, dudarik gabe. Etxe batetik bestera asko aldatzen da eta horrek du xarma. Urtetik urtera ere aldatu egiten da. Uztan eguraldiak agintzen du eta aurtengoa da horren adibidea. Iazko sagardoak oso arinak ziren, lasaiak, suabeak. Eta aurtengoak dena bestaldekoa du: izan dugun uda eta udazken lehorrak markatu du aurtengo sagar uza, kalitate handikoa izan dena. Aurtengo sagardoa, beraz, kontzentratua da, garrantzagoa da, freskoa, aurreko urtetakoa baino kolore handiagokoa, gorputz gehiago duelako. Garai batean egiten zen sagardoaren tankera gehiago du. Garraztasun handia du. Geroz eta berdintsuagoak izan daitezke egiten ditugun sagardoak baina ez dira inoiz berdinak izango, produktu bizia baita gurea.

Zenbaterainoko garrantzia izango luke sagardogileentzat sor-marka bat lortzeak?

Guk uste dugu prestigio dezente emango diola sagardoari, bai hemen baina batik bat hemendik kanpora. Horregatik egin nahi dugu sagardo ahalik eta gehiena bertako sagarrarekin, sor-markari bultzada eman eta gure produktua kanpora erakusteko. Prozesu luzea da, hiruzpalau urte daramatzagu lanean eta beste hainbeste beharko ditugu. Europako Batasunak erabakitzen du eta orain, bertako erakundeekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ari gara lanean. Gustura gaude erakundeekin sinisten dutelako proiektuan eta aurrera aterako dela uste dugu.

Egoki zerbitzatzen da sagardoa?

Sagardoa hain bizia da, berez defentsa gutxi ditu eta beraz zerbitzatzeko orduan garrantzitsua da nola tratatzen den produktua. Ostalaritzarekin elkarlanean aritu nahi dugu elkartetik formazio hori eskaintzeko: tenperatura zaindu, apur bat astindu behar da botila ama mugitzeko, zerbitzatzeko era... Gauza asko hartu behar dira kontuan.

Zenbateraino da garrantzitsua sagardogileentzat txotx denboraldia?

Ekoizpenaren %10 inguru saltzen dugu txotx garaietan. Krisiak besteei bezala eragin digu, baina erritual bezala jarrita dago sagardotegia eta urtean afari pare bat egin nahi izaten ditu jendeak. Iaz, dagoeneko,



Aburuza sagardotegiko jantokian sagardo denboraldia irekitzeko egunean hitz egin du Ibon Aburuzak. J. M.

alaiago sumatu genuen jendea eta horri eustea espero dugu aurtengoa. Mugimendu gehiena inauterietatik aste santuak bitartean izaten dugu. Jende gazteak ez du hainbesteko ohitura etortzeko, horiek erakarri beharko genituzke eta haiei erakutsi sagardotegiko kultura zein den. Ez da parranda leku bat bakarrik, nik esaten ohi dudana bezala elkarte baten antzekoa da, mahai batetik bestera harremanak egiten dira eta hori da sagardo kulturak duen gauza politenetakoa.

Botilan merkaturatzen duzue sagardo gehiena. Nola daramazue salmenta?

Gogorra da lan hori eta horretan ere ikasi beharra dago. Harremanak egin behar dira eta alde batetik bestera mugitu. Nik uste duintasun bat eman behar diogula sagardoari bere prezioan. Gu prezio baxutan gabilta, baina kontsumitzaileari beste prezio batean iristen zaio. Nik ez dut esango zenbategi batean saldu behar den sagardoa, baina ahalegin bat egin behar dugu ostalariekin elkarlanean aritu eta salneurriak adosteko.

Eta hemendik kanpora jotzen al duzue sagardoa saltzeraz?

Gehienbat Gipuzkoan saltzen da. Nafarroan eta Bizkaian ere bai eta hasiak gara estatuan saltzen. Sagardogileen Elkartean, sagardozale batzuk elkartu dira eta Ameriketako Estatu Batuei begira ariko dira. *Basque* izenarekin aterako da eta labeleko sagardoa izango da; hango merkatuari begira ari da lanean sagardogile talde hori eta aipatzen dutenez produktu naturalaren izaera

hori asko gustatzen zaie hango bezeroei.

Turismo arloan zein asmo daukazue hurrengo urteetarako?

Sagardotegiak ari gara baita ere turismoa sustatzen. Txotxa ere bada ekitaldi turistikoa eta geroz eta jende gehiago gerturatzen da. Haiei begira berrantolatu beharko ditugu sagardotegiak: katak, jan-edan ez kontzeak, bisitak... elkartean gai garrantzitsua izango da hurrengo lau urteetan.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR PREST MONDRAGON UNIBERTSITATEA	INGENIARITZA GRADUETAKO ATE IREKIAK GOIERRIKO CAMPUSA URTARRILAK 21 Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia MARTXOAK 12 Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia MAIATZAK 19 Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI 902 110 436 www.mondragon.edu/prest Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 bulegoa@goierrieskola.org
---	--

Tolosa

Zer gertatu da azken egun hauetan?



TGA-REN PRENTSAURREKOA ETA PROTESTA

Urtarrilak 14, osteguna. 18:00. Tolosako udaletxeko arkupeetan emandako prentsaurreko batean, Tolosako Gazte Asanbladako kideek «bidegabekeriatzat» jo zuten duela lau aste okupaturiko eraikina hustuarazi izana. Udalarekin aurrez izandako bileretan udal ordezkariak izandako jarrera ere kritikatu zuten gazteek: «Guretzako leku aproposik ez dagoela esan izan digute». Bide horretan, gobernua- ren «aldebakartasuna» gaitzetsi zuten, gaztetxea husteko erabakia «hartua» zute- la nabarmentzearekin batera. Prentsaurreko amaieran, aurpegia estalitako hiru gaztek simaur poltsak hustu zituzten udaletxeko atarian. Eztabaida sortu zen.



ERASOA TOLOSAKO BATZOKIARI

Urtarrilak 14, osteguna. 23:00. EAJren Tolosako batzokia erasotu zuten gauean hainbat ezezagunek. «Ezpala bizirik» eta «PNV gazteen etsai» zioten pintaketak agertu ziren. Horrez gain, margo hori eta urdinez ere zikindu zuten bertako horma. Hurrengo egunean, EH Bilduk, ohar bidez adierazi zuen ez zaiola bidezkoa irudi- tzen Tolosako Batzokiari pintaketak egitea. Koalizioaren ustez, gertaera horiek «gazteen eta udalaren artean gatazka» dagoela islatzen dute, eta horiei irtenbidea emateko «elkarriketa» dela bidea esan zuen. Hori dela eta, Gazte Asanbladari eta udalari «harremanetan jarri eta adostasunera iristeko» eskatu zien EH Bilduk.



EZPALAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Urtarrilak 16, larunbata. 17:00. Ezpalaren aldeko manifestazioa antolatu zuen Tolosako Gazte Asanbladak. Inguru bildu ziren, Gune Autogestioaren pankartarekin. Manifestazio horretan Tolosaldeko beste herrietako gaztetxeak ere parte hartu zuten. Frantzisko pasealekuaren bukaeran amaitu zuten manifestazioa.

Erreakzio kontrajarriak larunbateko gertakarien ostean

Udalak ez du babestuko «okupazioaren bidea»; gazteek, berriz, poliziaren jarrera salatu dute

ERREDAKZIOA TOLOSA

Joan den larunbateko gertakariak areagotu egin dute Ezpala Gaztetxearen inguruko eztabaida. Asteazkene-ko desalojoari, beste okupazio batekin erantzun zioten gazteek, baina Er- tzaintzak indarrez atera zituen arratsalde horretan bertan.

Hain zuzen, poliziaren jarrera hori salatu du Tolosako Gazte Asanbladak, eraikina husteko une horretan izan ziren istiluetako argazkiak es- kuetan zituztela. Jokabide «guztiz bi- degabea» izan zela esan dute, eta



Larunbateko eraikina giltzaz itxi zuten.

udalari leporatu diote egoera horre- tara iristeko «bidea libre utzi» izana: «Eraikina udalarena izanda, udalak ezin al zuen sarraskia gelditu?» gal- detu dute. Era berean, udal gober- nuak atzo goizean gertakari horien

inguruan komunikabideetara igorri- tako ohar batean istilu horien inguru- ko aipamenik egin ez izana gaitzetsi dute gazteek.

Ohar horretan, EAJ-PSEren udal gobernuak adierazi du ez duela ba-

bestuko «okupazioaren bidea», eta gazteek bide «okerra» hartu dutela ar- gudiatu du: «Helburu onena duen proiektuak sinesgarritasuna galdu dezake, helburu horiek lortzeko bide okerrak hartzen badira. Helburuak lortzeko indarra baino egokiagoa da bide demokratikoaren lanketan inda- rrak jartzea».

Azarotik harremanetan

Tolosako Udalak eta Gazte Asanbla- da duela bi hilabetetik daude harre- manetan. Baina TGAREN arabera, ibilbide luzeagoa du egoera honek: «2015eko urrian antolatutako Gaz- teburuan du sorrera. Egun horretako arrakasta ikusirik udalarekin bil- du ginen eta proiektu bat aurkezte- ko eskatu ziguten. Idatzitako bat aurkeztu genuen, zein motatako to- kia behar genuen adieraziz, baina

ez dugu berririk izan Ezpalatik bota gaituzten arte» adierazi zuten atzo arratsaldeko prentsaurrekoan.

Udalak, bien bitartean, «gazteek espazioaren baldintzak adierazi bai, baina proiektua garatu gabe zuten orri bakar bat» aurkeztu zutela dio, eta erantzuna jaso aurretik, «jabe- tza pribatuko leku batean legezkoa ez den okupazio bat» burutu zutela.

Udal ordezkarien adierazpen ho- rie erantzuna emanez, gazteek ar- gudiatu dute proiektua Ezpalan izan diren 23 egun horietan erakutsi du- tela. «Proiektua praktikara eraman dugu. Halaber, diote ez dagoela ga- ratuta, baina proiektuaren bilakae- ra hori hurbiltzen den pertsona orok erabakiko du asanblearioki. Beraz, leku bat dugun unetik aurrera hasi- ko da proiektua garatzen».

Limousin etxeari buruz

Bestalde, azken okupazioaren ingu- ruan, Tolosako Udal Gobernuak adie- razi du Limousin etxeak «beste helbu- ru bat aurreikusita duela», eta behar den lanketa egin eta eztabaidatu os-



sarrerak

Atarikideentzat sarrera pare bat dugu



RETAbet.es GBC
-
Fiat Joventut

Saskibaloia partida

Urtarrilak 24, igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

Atarikideentzat sarrera pare bat dugu



ANTZERKI
DANTZA
Joxean
Orbegozo

Urtarrilak 22, ostirala • 20:00etan Tolosako Topic-en

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.info

Topatu behar duzuna!

Eskualdeko zerbitzuak

www.ataria.info



MANIFESTAZIOA

a Gaztetxearen aldeko manifestazioa larunbaterako. Bertan, 200 pertsona hartu zuten parte. Bertan, 200 pertsona hartu zuten parte. Bertan, 200 pertsona hartu zuten parte.



HIRUGARREN OKUPAZIOA

Urtarrilak 16, larunbata. 17:20. Manifestazioaren erdian, Pedro Tolosatik behe-
ra jarraitu beharrean, Limousin etxea, garai batean Luminia enpresako nagusien
bizilekua zen etxea okupatu zuten gazteek. *Gazteon ametsak ezin dira desalojatu*
zihoen pankarta eta bandera okupa zintzilikatu zituzten balkoietatik, eta amaitu-
tzat jo zuten elkarretaratzea. Hortik aurrera, «erresistentzia» hasi zuten gazteek.
30 gazte inguru etxearen atarian eseri ziren, giza-harresi bat osatuz, Ertzaintza-
ren begiradapean. Inguruan, berriz, manifestazioko jendea pilatu zen. Etxearen
jabetza gaur egun Tolosako Udalarena da.



ISTILUAK ERAIKINA HUSTEAN

Urtarrilak 16, larunbata. 19:00. Ertzaintzako unitate gehiago iristearekin ba-
tera eman zioten hasiera eraikina husteari. Banan-banan atera zituzten eserita
zeuden gazteak; batzuk bere kabuz atera ziren, beste batzuk, berriz, indarrez,
irudian ikus daitekeen bezala. Guztiak identifikatu zituen polizia. Hesi polizia-
laren atzean herritar ugari bildu zen, eserita zeuden gazteei babesa emateko
asmoz. Tentsio uneak izan ziren une batzuetan Ertzaintzaren eta bertaratutako
herritarren artean. TGAk «borrakadak, irainak, ostikoak eta bestelako kolpeak»
jaso izana salatu zuen.

tean onartuko dutela proiektu horre-
kin aurrera egitea.

Gazteek ez dute ontrat eman ar-
gudio hori: «Ez dute aipatu inondik
inora zein proiektu den. Ongi dakigu
ez dagoela proiekturik, aurretik zeu-
den proiektuak atzera bota zirelako».
Hori dela eta, «eraikuntza hu-
tsak izan eta horrelako proiektuei
bizkarra ematea larritzat» jo dute.
Horregatik zilegi ikusten dute oku-
pazioaren bidea.

Negoiazteko prestutasuna

Bien bitartean, bi aldeek negoziazio-
rako prestutasuna azaldu dute.
Udalaren esanetan, pasa den osti-
ralean Asanbladako hiru kide Olatz
Peon alkatearekin eta Patxi Amante-
gi alkateordearekin bildu ziren, eta
«elkarlanerako proposamena» luza-
tu zieten gazteei. Gazteen esane-
tan, berriz, «inoiz ez dizkiogu atea
itxi negoziazioei», eta berdin jarrai-
tzeko asmoa azaldu dute. Halaber,
dei egin diote udalari «gaiaren erroa-
ri seriotasunez heltzeko konpromi-
soa» har dezan.

Gutunak

Tolosako EH Bildu

Urtarrilak 13

«Gazteek eskubidea dute beren proiektuak gune autogestionatuetan garatzeko»

Hustearen egunean, Tolosako EH Bilduk «gune hutsei bizia ematea txalotu» zuen ohar baten bidez, eta Tolosako Udalari gazteekin elkartze-ko deia egin. Halaber, Ezpalaren hustutzea gauatzeko moduen inguruan «kezka» azaldu zuen koalizioak, asanbladak astebururako deituriko mobilizazioak babestuz.

Ibarrako Gazte Asanblada

Urtarrilak 14

«Argi geratu da bat baino gehiagori ez diola graziarik egiten gazteria aktiboa antolatzea»

Ibarrako Gazte Asanbladaren iritziz, «jarrera lotsagarri eta salagarriak» izan ziren Ezpalaren hustutzean, eta Tolosako kideekin bat eginez, «hus-

tutze agindurik ez erakutsi izana» gaitzetsi zuten oharrean: «Nonbait, nahiago dute usteltzen ari den espazio hutsa kosta ala kosta bere horretan usteltzen uztea, gazteok bertan gune autogestionatuak eraikitzea baino».

Tolosako EH Bildu

Urtarrilak 15

«Ez zaigu bidezkoa iruditzen Batzokiari pintaketak egitea»

Gazte asanblako kideek hustea salatzeko agerraldia eskaini zuten, udaletxeko atarian simaurra utziz. Ordu batzuren buruan, berriz, Batzokian EAJren aurkako pintaketak azaldu ziren. EH Bilduk, horren aurrean, «elkarrizketa» defendatu zuen ohar bitartez, bi aldeak «adostasunera deituz». Pintaketak gaitzetsi zituzten, «gazteen proiektuak gauatzeko eskubidea» babestearekin batera.

Tolosako Ernai

Urtarrilak 15

«Gazteria kritiko baten alde borrokatuko dugu, oztopoen gainetik, autogestioa gauzatuz»

«Gazte automatak» hizpide izan zituen, Tolosako Ernaik, Ezpalari babesa azaltzeko plazaraturiko idatzian: «Tolosako Gazte Mugimendua suntsitu nahian, beren mesedeetara moldatzen garen gazteak bihurtu nahi gaituzte, eta burujabeak izan beharrean, burugabeak bihurtu nahi gaituzte».

Sanblaspiko Gazte Asanblada

Urtarrilak 15

«Ezpalako aldaketa gogoarekin bat egiten dugu, betiere, jada existitzen diren gune autogestionatuak gutxietsi gabe»

Otsabiko gazteen iritziz, «beste behin legea aurretik» jarri zuten, Ezpala hustuz, eta eraikin hutsen erabilera defen-

datu zuten oharrean. Horrela, «aitortza» eskatu zuten herriko gune autogestionatuentzat: «Bide horretan, hustea bezalako ekintzak norabide okerrean doaz».

Tolosaldeko AAM

Urtarrilak 17

«EAJren polizia armatuak bortizki desegin zuen lurrean eserita zeuden gazteen harresia»

Larunbateko gertakarien ondoren, Tolosaldeko Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aldeko Mugimenduak identifikaturiko gazteek «isunak eta epaiketak izatearen arriskuaz» ohartarazi du eta, halaber, «gazteriak erakutsitako duintasuna txalotu». Azkenik, «EAJren agindupeko udalaren isiltasuna» gaitzetsi dute.

Albiste honi lotutako gutunak
osorik www.ataria.info
webgunean daude irakurgai

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

telefonoa 943651063
e-posta 012244aa@hezkuntza.net
webgunea www.samaniego-tolosa.hezkuntza.net

07:30etik aurrera
Haur Txokoa

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU
Matrikula epea: urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

Bide Berri 2016 BHI
Mundua zeharbatzeko bidea

telefonoa 943651387
webgunea www.orixebhi.hezkuntza.net
e-posta 012980aa@hezkuntza.net

07:30etik aurrera
Haur Txokoa

PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
EGUNEROKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA

OSTATUA

Urrope z/g 20491 • LEABURU • Tel.: 943 67 42 77 • ostatua@ostatua.com

INAUTERIETAN
MENU BEREZIA
Erreserba egiteko:
943 67 42 77

Kirolak

Emaizak

ARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

15. jardunaldia

Aurrera Vitoria-Lauburu 3-2

Sailkapena

1. Zierbena	25p
2. Ebrosala	32p
3. Pinseque	31p
7. Lauburu Ibarra	23p
16. Sala Cadrete	5p

Hurrengo jardunaldia

Debabarrena-Lauburu Ibarra

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF-Bergara

LEHEN ERREGIONALA,

2. MULTZOA, IGOERA FASEA

3. jardunaldia

Billabona-Ordizia	1-1
Tourgin-Intxurre	2-4

Sailkapena

1. Intxurre.	9p
2. Mondragon	9p
3. Behobia	9p
8. Billabona	1p
10. Herrera	1p

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIO MAILAKOA

C TALDEA

15. jardunaldia

Usurbil-Tolosa 23-37

Sailkapena

1. Tolosa CF Eskubaloia	27p
2. Trapagaran	25p
3. Eibar	22p
16. Pulpo	0p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia-Pulpo

FUTBOLA

GIZONEZKOEN OHOREZKO

ERREGIONALA

18. jardunaldia

Tolosa CF-Martutene 2-0

Sailkapena

1. Tolosa CF	41p
2. Anaitasuna	35p
3. Ostadar	33p
18. Ordizia	15p

Hurrengo jardunaldia

Aloña Mendi-Tolosa CF

EMAKUMEZKOEN IGOERA FA-

SEA, ERREGIONALA

4. jardunaldia

Tolosa CF-Allerru 7-2

Sailkapena

1. Arizmendi.	12p
2. Urnieta	12p
3. Tolosa CF	9p
10. Intxaurdi	0p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF-Mutriku

ERREGIONAL PREFERENTEA

2. MULTZOA

16. jardunaldia

Ikasberri-Tolosa CF 1-2

Sailkapena

1. Amaiak Bat.	41p
2. Mondragon	36p
3. Urola	30p
11. Tolosa CF	17p
16. Antzuola	7p

Hurrengo jardunaldia

Intxurre-Billabona

PILOTA

LEHEN MAILAKO BINAKAKO

TXAPELKETA

7. jardunaldia

Xala-Merino	9
Artola-Albisu	22
Bengoetxea VI-Untoria	20
Altuna III-Merino II	22

Sailkapena

1. Irujo-Rezusta	5-1
2. Olaizola II-Urrutikoetxea	5-2
3. Artola-Albisu	5-2
4. Bengoetxea-Untoria	4-3
5. Ezkurdia-Barriola	3-4
6. Irribarria-Zubieta	2-5
7. Altuna III-Merino II	2-5
8. Berasaluze II-Beroiz	1-5

8. jardunaldia

Bengoetxea VI-Untoria

Artola-Albisu

Irujo-Rezusta

Altuna III-Merino II

OGI BERRI-MIGEL SOROA

TXAPELKETA

Jubenilak

Alberdi-Salaberri	22
Anso-Aizpuru	21

Promesak

Elizalde-Mariezkurrena	21
Mikel Goñi-Salegi	22

Elite maila

Peña-Gorrotxategi	22
Bakaikoa-Murguiondo	13

SASKIBALOIA

EBA LIGA

A MULTZOA

11. jardunaldia

Cantabria-TAKE 102-65


Sailkapena

1. Ardoi	9-2
2. Pielagos	8-2
3. Cantabria	8-3
7. TAKE	5-6
14. Flecha	2-9

Hurrengo jardunaldia

TAKE-La Flecha

Behar-beharrezko garaipena



Ogi Berri Migel Soroa txapelketan joko ikusgarria eskaini zuten pilotariek. A. u.

IV. Ogi Berri Migel Soroa txapelketaren partidak jokatu ziren igandean

ERREDAKZIOA

Jokin Altunak eta David Merinok bizirik irauteko garaipena behar-beharrezkoa zuten, binakako txapelketaren zazpigarren jardunaldian. Puntu bakarrarekin zeuden, eta lau-garren postua hiru garaipenera. Bi-

nakako txapelketan lau bikote sailkatuko dira ligaxkaren amaieran, finalerdietarako. Bengoetxea VI.a eta Untoria daude postu horretan. Horregatik ere, euren aurkakoa irabaztea garrantzitsua zen amezketararentzat eta errioxararentzat. Eta lortu zuten, 20-22. Sailkapenari begiratura ez du balio izan postuak igotzeko, baina bai txapelketan bizirik jarraitzeko. Markinan jokatu zen partida horren inguruan, Altuna

III.aren jokoa nabarmendu behar da. 12 tanto egin zituen amezketararak, eta hori bezain garrantzitsua, defentsan erakutsi zuen boterea. Hutsak lau bakarrik izan ziren.

Iñaki Artola ere bikain aritu zen ostiralean, Zumarragan. Albisurekin batera, Xala-Merinoen aurka jokatu zuen alegiararak. Partidako onena bera izan zen, eta bigarren itzulian ezusteko handirik ez baldin bada, finalerdietan egoteko handiak ditu; onenen artean.

Partida oso parekatuak Tolosan

IV. Ogi Berri Migel Soroa pilota txapelketan, Tolosan, partida oso orekatuak jokatu ziren igandean. Beoti-barreko jaialdia hiru partidek osatu zuten, eta zaletuek gogotik gozatu zuten; kantxan kalitate handia ikusi baitzen. Jubeniletan, Alberdi-Salaberria nagusitu ziren, tanto bakarreko aldeaz. Anso-Aizpuru 18-21 joan ziren irabazten, baina ezin azken tantoa egin. Alberdi azpeitiarra bikain aritu zen, 8 tanto eginaz.

Promesetan markagailu bera ikusi zen: 21-22. Mikel Goñi-Salegi izan ziren azken tantoa egin zutenak. Goñi izan zen lau pilotarietan onena, zazpi tanto lortuz. Partidaren azken txanpa gogorra izan zen. Aurreko partidaren bezala, urdinak 18-21 jarri ziren aurretik. Elizalde-Mariezkurrenak ez zuten etsi, eta 21nakoa lortu zuten. Lehen partidaren amaiera bera izango zuela zirudien promesetako lehiak. Azkenean, orde, gorriak nagusi.

Elite mailan, Peña-Gorrotxategi nagusitu ziren argi eta garbi. Aurrelari tolosarra sasoiko dago, eta erakustaldia eskaini zuen.

Irudia Tolosa



Jauziak eta erorikoak Skate parkean

Ikuskizun ederra eman zuten igande arratsaldean Tolosako Skate parkean, Usabalen. Adin guztietako jendeak parte hartzeko aukera izan zuen bertan, eta jendearen erantzuna ere tamainakoa izan zen, ikusle

ugari elkartu baitziren Skate parkean. Jauziak ikusgarriak izan ziren, eta hauen saiakeran lortutako erorikoak ere bai. Hala eta guztiz ere skater desberdinen ikuskizuna nagusitu zen Tolosan. **ANDONI UZKUDUN**

Pista sarian, hiru txapeldun

Amondarain, Iribar eta Irisarrik lehen postua lortu dute

ASIER IMAZ TXIRRINDULARITZA

Gipuzkoako Pista Sariaren zortzigarren eta azken jardunaldia jokatu zen igandean, Donostian. Ordura arteko puntu guztiak pilatuta, aurtengo irabazleak nortzuk izan diren erabaki zen. Pista saria lau mailatan jokatu da, eta horietatik hirutan, eskualdeko txirrindulariak izan dira azken sailkapenean nagusi: Maddi Amondarain, Unai Iribar eta Jon Irisarri.

Nesken mailan nagusitu da Maddi Amondarain ibartarra. Limousin

Cartonajes taldeko txirrindulariak bigarrenari 22 puntu atera dizkio sailkapen nagusian, Caja Rural Bide Bideko Arantxa Garikanori.

Kadeteak izan dira eskualdeko txapelduna izan ez duten bakarrak. Eskualdeko lehen ordezkaria zazpigarren postuan gelditu da, Iñaki Murua. Bere taldekidea, Unai Iribar, juniorretako txapelduna izan da. Limousin Cartonajeseko txirrindulari ibartarrak 130 puntuko aldea atera dio bigarrenari. Luis Mari Garikano Limousinekoa hirugarren sailkatu da maila horretan.

Open kategorian, Caja Ruraleko Jon Irisarri leaburuarra nagusitu da, Ander Alonso taldekideari 18 puntuko aldea aterata.



Jubenil neskentzat lehen estropada

Gipuzkoako Batel Ligan emaitza onak lortu ditu TAKEk

ERREDAKZIOA ARRAUNA

Larunbatean hasi zen Gipuzkoako Batel Liga, Pasaian. Jubenil neskek maila paregabea eman zuten. Tolosaldea A taldeak estropada irabazi zuen, eta B taldea bost segundora bigarren sailkatu zen. Lorpen horiez gain, Tolosaldeko Arraun Klubeko ordezkariak hiru bigarren postu eta hiru hirugarren postu lortu zituzten.

Emakumezko haurrek bigarren eta hirugarren egin zuten. Podiumean sartu ziren, beraz, TAKEko bi batelak. Tolosaldea A lau segundora geratu zen, eta Tolosaldea B, Hibaikatik 39ra.

Promesa nesketan ere podiumean egotea lortu zuen TAKEko batel batek, Tolosaldea A ontziak, alegia. Hibaikaren atzetik, bigarren egin zuen.

Infantil mutiletan ere emaitza onak lortu zituen TAKEk. Aurkariari lana zaildu zioten, eta bigarren posturako aritu ziren lehian. Azkenean, Tolosaldea A hirugarren geratu zen, Orio eta Zumaiaren atzetik.

Kadeteetan, Tolosaldea B taldea izan zen TAKEko ontzietatik bizkorrena. Hirugarren egin zuten, Orioren eta Zarautzen atzetik. Tolosaldea A taldeak bosgarren egin zuen, irabazlearengandik 33 segundora.

Jubenil mutiletan, TAKEk bi ontzi aurkeztu zituen. Tolosaldea A zazpigarren postuan sailkatu zen, eta Tolosaldea B hamalagarren.

Asteasuko Amenabar baserria suak erre du

35 eta 41 urteko bi pertsona onik atera ziren, larunbatean

ERREDAKZIOA ASTEASU

Asteasuko Amenabar baserrian sua piztu zen larunbat arratsaldean. Ez zen zauriturik izan, baina teilatua erabat suntsituta geratu zen.

Segurtasun Sailak emandako datuen arabera, 18:40ean eman zuten sutearen berri. Asteasu eta Andazarrateko gainaren artean kokatuta dagoen Amenabar baserriko tximiniak hartu zuen sua, baina segituan hedatu zen etxean zehar: bigarren solairura lehenengo, eta teilatura ondoren. Minutu gutxiren buruan erori zen teilatua.

Tolosako eta Zarauzko suhiltzaile-



Asteasu eta Andazarrateko gainaren artean dago Amenabar baserria. JON MIRANDA

ak bertaratu ziren, eta Ertzaintzak trafikoa moztu zuen GI-2631 errepidean. 21:00etan itzali zuten sua, baina suhiltzaileek lanean jarraitu zuten sugar guztiak itzali arte.

Teilatuaz gain, bigarren solairuan ere kalte handiak eragin zituen suteak. Sua itzaltzeko erabilitako uraren

ondorioz, lehen solairuan ere kalteak izan ziren.

Baserrian 35 eta 41 urteko bi pertsona bizi ziren, eta onik atera ziren. Pili Legarra Asteasuko alkatea ere bertaratu zen, sutearen lekura, eta kaltetuei ostatu emateko gestioak egin zituen.

Irudia Tolosa



Leidorren, 'Salba ditzagun biziak'

Egeo itsasoa zeharkatzen ari diren errefuxiatuak laguntzeko jaialdia egin zuten larunbatean Tolosako Leidorren. Eskualdeko eragile ugari hartu zuten ekitaldian. Bertan bildutako dirua 'Salvamento Marítimo Humanitario' Gobernu Kanpoko Erakundearentzat bideratu zuten, errefuxiatuak laguntzeko behar duten tresneria lor dezaten. UDABERRI DANTZA TALDEA

Irudia Abaltzisketa



Izagirre anaiek ireki dute txotx denboraldia

Abaltzisketako Zalbide sagardotegia lepo bete zen larunbatean; 150 lagun. Gorka eta Jon Izagirre txirrindulariek ireki zuten txotx denboraldia. Arratsaldean giro bikaina bizitu zen, aizkolari, harri-jasotzaile, eta

bertsolariekin. Zalbideko Unai Garmendiak eskerrak eman zizkien bertaratuei, ibilbide berriaren hasieran laguntzeagatik. Afarian musika eta guzti egon zen, Azkaiter pelox trio taldearen kontzertuarekin. ATARIA


Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Eneritz Maiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa
Telefonoa: 943 65 56 95
ataria@ataria.info • www.ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.info
Bezero arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko...):
902 82 02 01

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



09:00-11:00: Pasahitza
eskualdeko berriak, artearen txokoa, errejeta eta lehiaketa. Oihana Iguaran *Kale Kantoitik* Deitu 10:45etik 10:55era (943 698038) eta Antton Telleriaren eskutik eguneko abestia.
11:00-12:00: Hamaiketakoa
Alegialdeko albisteak.
12:00-13:00: Entzuteko jaioak
16:00-18:00: Zebrabidea.
18:00-20:00: Goizeko saioak utzitako onena.
20:00-20:30: Kokondo
Oskar Tenaren musika saioa.

Aiztondorako frekuentzia berria:
105.0 fm



12:30: DJ Amaia
13:30: Gaurkoan Tolosalde
17:30: Gaurkoan Tolosalde
21:30: Platopic
21:30: Gaurkoan Tolosalde
22:00: Zaindu Zaitetz
23:00: Muga Barik: Toskana
23:30: Gaurkoan Tolosalde



GAUR
Tolosa
Egunekoa:
Olarreaga, I. Korreo kalea, 2
Telefonoa: 943 67 01 28.
Gauekoa:
Morant Barber, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

Zorte ona bedeinkatu diren animalientzat

Ohiturari jarraituz, Berastegiko San Anton ermitan animalia ugari bedeinkatu zituzten

ANDONI UZKUDUN BERASTEGI

San Anton eguna ospatu zuten igandean Berastegin. Animalien Eguna dela kontuan hartuta, mota ezberdinetako animaliak bedeinkatu zituzten Berastegiko San Anton ermitan. Txakurrak, akerrak, txoriak, txerriak eta beste hainbat animalia eraman zituzten bertara.

Tradizio handiko ospakizuna da Berastegin ospatzen dutena. Garai batean baserriko animaliek uzta ona eman zezaten bedeinkatzen ziren animaliak. Gaur egun, berriz, baserriko animaliez gain etxeko maskotak ere eramaten dituzte bertara.

Berastegiko herritarrez gain, eskualdeko nahiz inguruetako animaliak ere ekartzen dituzte zorte onaren bila. Ohitura honekin aurrera jarraitzeko gogoia eta kemena badagoela erakutsi zuten.



Herritar ugari joan zen euren animaliak hartuta San Anton ermitara. **ANDONI UZKUDUN**



Meza eta bedeinkapenez gain, jatekoa ere izan zuten bertaratuek, Berastegin. **A. U.**



IKER IBARLUZEA

GAUR

Lasaitu egingo da eguraldia, nahiz eta goiz partean oraindik ere zaparradak izango diren. Mendebaldeko haizeak zakar joko du, eta arratsaldean hego mendebaldeko haizearekin atertu egingo du. Iluntze parterako ostar bate batzuk zabalduko dira eguna giro politarekin bukatuz. 11-12 graduko maximak izango dira.

BIHAR

Egun osoan zehar, orokorrean, giro lasaia nagusituko da. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko zaigu, eta erdi eta goi mailako hodei dezente ikusiko dugu, batez ere, arratsalde partean. Zerua estaltzen joango da, eta baliteke egunaren amaieran zaparradaren bat botatzea. 11-12 edo gehienez 13 gradura igoko da tenperatura.



DEIALDIAK

TOLOSA. *Jolasa eta Txotxongiloak* erakusketa, Topic zentroan, Los Titiriteros de Binéfar taldearen arteko lankidetzari esker.

TOLOSA. Unibertsitateko ikasleentzat ikasgela zabalik, astelehenetik ostiralera. Gazte Topagunean, kultur etxeko lehen solairuan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Prezioa	Atarikideek
14€	10,50€
28€	21€
40€	30€
46€	34,5€

Jarri zorion agurra eta eskaini kantu bat irratiari!

urtebetetzeak ezkontzak jaioberriak ...

943 65 56 95
ataria@ataria.info
San Esteban 20
TOLOSA

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

www.ataria.info

107,6 fm




Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Mendizabal Gai jartzailea: Amaia Agirre

Urtarrilak 23 • LARUNBATA • 18:00etan Tolosako Leidor antzokian

Sarrerak 10 €

- Tolosa: Raku, Orbela, Kantabriko
- Alegia: Route 33
- Villabona: Amasa kafetegia
- Zizurkil: Iriarte
- Ibarra: Zubiaurre